

IMAB - DIRU ITURRIAK

Gure enpresaren kasuan, diru iturri bat baino gehiago izango ditugu. Alde batetik, gure web orrian hainbat sail gordeko ditugu bertan **publizitatea** jartzearen bidez dirua lortzeko. Diru sarrera hau, ordainketa bakarrekoa izango da. Enpresaren batek gure web orrian publikitatea jartzea nahi badu, publikitate honen iraupena eta iraupenaren arabera, prezioa adostuko dugu.



Beste diru iturria, hurrengoa izango da. Gure lana pisuaren jabearen eta pisua alokatu nahi duenaren (ikaslea) arteko elkar-bilaketa lortzea da, akordio batera iritsi daitezken bi bezeroei elkartzea. Behin bi hauek akordio batera iristea lortzen dutenean, hilabete bakoitzeko prezioa finkatuko da. Lehenengo ordainketa egiten denean, **komisio bat jasoko dugu**. Diru-iturri hau ere ordainketa bakarrekoa izango da, lehen esan dugun bezala, lehen ordainketan jasoko dugu dirua eta ondoren ez ditugu sarrera gehiago jasoko bezero hauetatik.



Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure enpresaren kasuan, bezeroekin (pisuko jabea eta alokatu nahi duen ikaslea) edo publizitatea jarri nahi dutenen beste enpresekin akordio batera iristea izango da gure helburua. Pisuko jabea eta alokatu nahi duenei erreparatuta, guk hauei eskainitako zerbitzu edo laguntzaren truke jasoko dugu “komisioa” eta web orriko publizitatean prezioa finkoa izango da. Ez dugu uste prezioak arazoa izango direnik gure bezeroekin adostasun batera iristeko momentuan. Ordainketak internet bidez egingo dira, guk ez dugu kontaktu fisikorik mantenduko gure bezeroekin.

